

Sociedad



Alaba, Euskal Sagardoaren 'ahizparik' gazteena

Horrela izendatu dute Kuartango sagardotegian aurkeztu berri duten sagardoa, bertako sagar motekin egina



Harrera oso ona izan zuen sagardo erabat arabarrak aurkezkepean dastatzeko aukera izan zutenen artean. / EUSKAL SAGARDOA

M. IMAZ

Igandea, 25 abendua 2022, 13:29



Euskal Sagardoa jatorri deiturak bost urte eta erdi bete dituen honetan -2017ko ekainean aurkeztu zen eta orduan hasi zen merkaturatzen, sagar gorri batekin identifikatuta-, 'ahizpa' berri bat bildu da familiara: Alaba izena jarri dioten Arabako sagardo berezia, lurralde horretako sagarrez egina.

Izan ere, Euskal Sagardoa jatorri deituraren ezaugarri nagusia sagarraren jatorria da, eskaintzen duen kalitate-bermea lortzeko %100 bertako sagarra erabili behar baita. 115 sagar mota daude baimenduta eta horiexek jartzen dituzte 248 ekoizleek Euskal Sagardoa egiten duten 48 sagardotegien esku. Horrenbestez, sagardogile asko ari dira irizpide horien arabera sagardoa ekoizten eta merkaturatzen, baina soilik Arabako sagar motak erabiltzearen aldeko urratsa Zuhatsu-Kuartangoko Kuartango sagardotegian egin dute, sagardogintzan urteak daramatzan Benito Peciñaren eraginez.

Kuartangok lehendik ere eskaintzen du izen bereko Euskal Sagardoa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagarrak erabilia ekoitzia. Azken urteetan Arabako sagarrak landatu ditu, horien ekarpena handiagoa izan dadin, eta soilik sagar arabarrez egindako Alaba ere ahalegin horren emaitza da.

Izan ere, Greñas, Udare sagarra, Mocetas eta Quesica sagar motak erabili dituzte kopan dastatzea gomendatzen duten sagardo 'lurrintsu eta ahoan orekatu' hau ekoizteko. Aurreneko saioaren emaitza ez da handia izan kopuari dagokionez, 1.000 botila inguruko edizio mugatua izan baita estreinakoa, baina ekoizpena handitzen jarraitzea da asmoa.

TEMAS Zabalik

TENDENCIAS

 **Comentarios** 


PATROCINADA

SAINT-GOBAIN

¿Reformas en tu edificio? Justo es el momento y te damos las claves para ahorrar



Fotos



📷 La ola de Nazaré, tan bella como peligrosa



📷 Preparativos para el Año Nuevo chino



📷 Los 'pingüinos' desafían al frío



📷 Siete hospitalizados y varios atendidos tras un escape de cloro en el polideportivo de Ordizia

Vídeos



Tolón ve más cerca la modificación de la ordenación urbana de Toledo



© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Mikeletegi Pasealekua 1. 20009 - Donostia-San Sebastián



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

vocento

[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)